

Gizarte Bonu Elektrikoa

ZER DA?

Ohiko etxebizitzako **argindar fakturan** jaso daitekeen **deskontua** da.

BETEBEHARRAK

1.- Merkatu arautuko Kontsumitzaile Txikiaren Borondatezko Prezioaren tarifa (**PVPC**) kontratatua izatea, eta **potentzia ≤ 10 kW**.

2.- Hauetako baldintzaren bat betetzea:

- **Kontsumitzaile kaltebera:** hauetako baldintzaren bat betetzea:
 - Bere edo bizikidetzaren unitatearen urteko errenta (zerga-oinarria + aurrezkia) honelakoa izatea:
 - 1,5 x IPREM 14 ordainsarikoa, **adingaberik gabe (12.600 €)**.
 - 2 x IPREM 14 ordainsarikoa, **adingabe batekin (16.800€)**.
 - 2,5 x IPREM 14 ordainsarikoa, **bi adingaberekin (21.000 €)**.
 - **Familia ugariaren** titulua izatea.
 - Berak edo bizikidetzaren unitateko kide guztiek **gutxieneko pentsioa** jasotzea, urtean **500 €-tik gorako diru sarrera gehigarririk gabe**.
- Egoera **bereziak, errenta mugak 1 x IPREM (8.400 €) handitzen dira:**
 - Kontsumitzaileak edo bizikidetzaren unitateko kideren batek **% 33 edo gehiagoko desgaitasun aitortua** izatea.
 - Berak edo kideren batek **genero indarkeria** egoera ziurtatzea.
 - Bera edo kideren bat **terrorismoaren biktima** izatea.
 - Bera edo kideren bat **II. edo III. graduako mendekotasun aitortuan** egotea.
 - Bizikidetzaren unitatea **guraso bakar batek eta, gutxienez, adingabe batek** osatzea.
- **Kontsumitzaile kaltebera larria:** hauetako baldintzaren bat betetzea:
 - Kontsumitzaile kaltebera izateko ezarritako **errenta atalaseen % 50 edo gutxiago jasotzea urtean**, egoera berezien igoerak barne, hala badagokio.
 - **Familia ugaria**, urteko **errenta 2 x IPREM 14 ordainsarikoa (16.800 €)** duena.
 - Berak edo unitateko kide guztiek **gutxieneko pentsioa** jasotzea, urtean **500 €-tik gorako diru sarrera gehigarririk gabe**, eta unitatearen **errenta ≤ 1 x IPREM (8.400 €)** izatea.
- **Gizarte-bazterketa arriskudun kontsumitzaile kaltebera larria:** Kontsumitzaileak **kaltebera larritzat hartzeko baldintzak bete** behar ditu, **eta** gainera, tokiko edo autonomiako administrazio publiko bateko **gizarte-zerbitzuek artatu behar dute**, gutxienez bere **fakturaren % 50 finantzatuz** PVPCan. Ordainketari aurre egitea ezinezkoa bada aldi batez, ezingo da hornidura elektrikoa eten.

NOLA ESKATU

Zuzenean **erreferentziazko merkaturatzaileari** eskatuz eta bi urtero berrituz.

DESKONTUAK

- Kontsumitzaile **kaltebera: % 25**eko deskontua. (**% 65** 2023ko abenduaren 31ra arte).
- Kontsumitzaile **kaltebera larria: %40**ko deskontua. (**% 80** 2023ko abenduaren 31ra arte).
- Gizarte-bazterketa arriskudun kontsumitzaile kaltebera larria: % 100**eko deskontua.

BESTE ONURA BATZUK

- Argindar **faktura argiagoak**, zeinetan ordaindu beharrekoa energiaren prezioa den, zerga eta bidesariak gehituta.
- Ordaindu gabeko fakturei aurre egiteko epe luzeagoa** (4 hilabete lehen jakinarazpenetik).
- Hornidura ezin izango da eten ez-ordainketengatik**, bizikidetza-unitatean gutxienez **16 urtetik beherako %33 edo gehiagoko desgaitasuna**, edo **II. edo III. gradu**ko mendekotasuna duen kiderik baldin bada.

APLIKAZIO-MUGAK

Gizarte-Bonu Elektrikoa kontsumitutako **kWh muga bateraino** aplikatzen da, kategorien funtzioan.

KATEGORIAK	URTEKO M. (kWh)	HILEKO MUG. (kWh)
Banakoa / 2 pertsonako bizikidetza unitatea	1.587	132
3 pertsonako unitatea / Pentsiodunak (gutxienezkoa) / Adingabe 1 duen bizikidetza unitatea	2.222	185
4 pertsonako unitatea / 3 pertsonako unitatea haietatik 2 adingabeak izanik	2.698	224
5 edo pertsona gehiagok osatutako unitatea / 4 pertsonako unitatea haietatik 3 adingabeak izanik / Familia ugariak	4.761	396

Mugetatik gora kontsumitutako energiak ez du hobaririk izango eta PVPC prezioan ordainduko da.

Hileko muga gainditzen ez denean, kWh hoiek datozen hiletarako **gordetzen dira**.

Gizarte-Bonu Termikoa

ZER DA?

Berokuntza eta ur bero sanitarioaren gastuei aurre egiteko **dirulaguntza** bat da.

BETEBEHARRAK

1.- Merkatu arautuko Kontsumitzaile Txikiaren Borondatezko Prezioaren tarifa (**PVPC**) kontratatua izatea, eta **potentzia ≤ 10 kW**.

2.- **Gizarte-Bonu Elektrikoa**ren onuradun izatea.

NOLA ESKATU

Ez dago Gizarte-Bonu Termikoa eskatu beharrik, **automatikoki ematen zaie** Gizarte-Bonu Elektrikoaren onuradunei.

DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntzaren zenbatekoa kontsumitzailearen eta **zaurgarritasun mailaren eta** hau bizi den **eremu klimatikoaren arabera**koa da.

Argindarraren faktura helbideratuta dagoen kontuan jasotzen da transferentzia bidez, urteko lehen hiruhilekoan.

Justizia Energetikoko Gizarte-Bonua

ZER DA?

Ohiko etxebizitzako **argindar fakturan** jaso daitekeen **deskontua**, **Gizarte-Bonu Elektrikoaren antzekoa**, eta salbuespenez, **2023ko abenduaren 31ra arte** indarrean egongo dena.

Diru-sarrera txikiak dituzten etxebizitzetzi zuzendua dago eta fakturak **% 40ko** **deskontua** dakar.

Bonu honen onuradunek **ez dute Gizarte-Bonu Termikoa jasotzeko eskubiderik izango**.

BETEBEHARRAK

1.- Merkatu arautuko Kontsumitzaile Txikiaren Borondatezko Prezioaren tarifa (**PVPC**) kontratatua izatea, eta **potentzia ≤ 10 kW**.

2.- Kontsumitzaile titularren edo bizikidetza-unitatearen **urteko errenta $\leq 2 \times$ IPREM 14 ordainsarikoa (16.800 €) eta $> 1,5 \times$ IPREM 14 ordainsarikoa (12.600 €)**.

- IPREMaren **biderkatzailea 0,3** handituko da adin nagusiko kide bakoitzeko.
- IPREMaren **diberkatzailea 0,5** handituko da adin txikiko kide bakoitzeko.

Gizarte Bonuak Eskatzeko Beharrezko Dokumentazioa

- Gizarte-bonuaren **eskaera**, beteta eta sinatuta (**merkaturatzaileak**, fisikoa edo digitala).
- 14 urtetik gorako bizikidetza-unitateko kide guztien **NANaren edo AIZaren fotokopia**.
- **Familia-liburuaren fotokopia, erantzukizunpeko adierazpena edo Erregistro Zibilaren banakako orria** (bizi-agiria), bizikidetza-unitateko kide guztien **egoera zibilari buruzkoa (Bake-epaitegiak)**.
- Bizikidetza-unitateko kide guztiak agertzen diren **errola-ziurtagiriaren fotokopia**. 3 hilabetetik beherako antzintasuna izan behar du (**Udalak**).

EGOERA BEREZIREN BAT BETETZEN BADU BAKARRIK:

- **Gizarte Zerbitzuen** edo hori egiaztatzen duen organo eskudunaren **ziurtagiria**.

ESKAERAREN ARRAZOIAREN ARABERA, HONAKO HAUEK ERE AURKEZTUKO DIRA:

- **Familia ugariaren tituluaren fotokopia**.
- Bizikidetza-unitateko kideren batek **Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera** jasotzeko eskubidea duela **egiaztatzen duen agiria (Gizarte-segurantza)**.

Oarsoaldea2025

Oarsoaldea Garapen Agentzia



Energia Bulegoa
OARSOALDEA

Olibet 6, Errenteria.

943 34 41 60

energia@oarsoaldea.eus

www.oarsoenergia.eus

